

## GUÍA DOCENTE

2017/18

**Centro** 231 - Facultad de Psicología

**Ciclo** Indiferente

**Plan** GPSICO20 - Grado en Psicología

**Curso** Indiferente

## ASIGNATURA

25039 - Norma y Uso de la Lengua Vasca

**Créditos ECTS :** 6

## DESCRIPCIÓN Y CONTEXTUALIZACIÓN DE LA ASIGNATURA

Psikologia graduko ikasleek hizkuntza eta komunikazioa ondo mederatzeko premia dute, bai gradua egin bitartean eta baita ikasketak amaitu eta lan-munduan barneratzean ere. Gradua egiten ari direnean, batetik, Gradu Amaierako Lana idazteko eta aurkezteko beharko dute euskaraz zuzen eta egoki aritzeko gaitasuna; bestetik, nahitaezko praktikak egiten ari direnean oso baliagarri izango zaie euskaraz argi eta txukun komunikatzeko gaitasuna. Gradua amaitzen dutenean, Psikologia ikasleek askotariko bideak hartuko dituzte: osasunaren alorra, hezkuntzarena, enpresa mundua, akademia eta ikerketa, eta beste hainbat. Horietan guztietan eskatuko zaie hizkuntza ondo menderatzea eta argi eta zehatz komunikatzeko gai izatea. Beraz, berebiziko garrantzia du Psikologia ikasleentzat idatzizko eta ahozko komunikazioan, bietan, trebatzeak.

"Euskararen arauak eta erabilerak" (EAE) irakasgaia graduaren laugarren mailan eskaintzen da, lehenbiziko lauhilekoan, eta "Komunikazioa euskaraz: Psikologia" (KE) irakasgaiaren oinarria da nolabait, zeina gradu, maila eta lauhileko berean eskaintzen den. Hautazko irakasgaiak dira biak. Lehenengoan, hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko oinarrizko tresnak irakatsiko zaizkio ikasleari, eta arreta jarriko zaie euskaraz psikologiari buruz idaztean sortzen diren traba eta arazoei. Bigarrenean, gehiago sakonduko da hizkera teknikoan, psikologiako terminologian, testu-sorkuntzan, eta psikologiaren alorrean hizkuntzak dituen premia berariazkoetan.

Irakasgai hau egin nahi duten ikasleek gutxienez euskarako B2 maila izatea komeni da.

## COMPETENCIAS / RESULTADOS DE APRENDIZAJE DE LA ASIGNATURA

Hauek dira irakasgai honek jomugan hartuko dituen GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1. gaitasuna. Goi-mailako tituludunek euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan.
2. gaitasuna. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea, hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokia jomugan.
3. gaitasuna. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.

Gaitasun espezifiko horiek lantzeko erabiliko dugun metodologiaren bidez, Psikologia graduan zehazten diren honako ZEHARKAKO GAITASUN hauek garatuko ditu ikasleak:

• Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.

• Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoa baloratuz.

• Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

### IKASKUNTZAREN EMAITZAK:

- a) Testuinguru komunikatiboa kontuan hartuta, ikasleak bere testuak zuzendu eta egokitzen ikasiko du.
- b) Hizkuntza-zalantzak argitzeko eskuragarri dauden kontsulta-baliabideak (hiztegi elektronikoak, datu-base terminologikoak, corpusak,...) eraginkortasunez erabiltzen ere ikasiko du.
- c) Internet eta IKTak testuinguru akademiko zein profesionalean eraginkortasunez erabiltzeko gai izango da.
- d) Zuzen eta egoki idazten eta hitz egiten trebatuko da.

## CONTENIDOS TEORICO-PRACTICOS

EDUKI TEORIKOAK. Aurreko atalean zehaztutako helburuak lortzeko, hainbat gai landuko dira irakasgai zehar.

1. Araua eta erabilera: sarrera
  - 1.1. Sarrera
  - 1.2. Arau motak
  - 1.3. Hizkuntza-aldaerak
  - 1.4. Aldaera estandarra
  
2. Euskararen arau estandarra: Euskaltzaindiaren araugintza
  - 2.1. Hizkuntza estandarra
  - 2.2. Euskararen estandarizazio-eredua
  - 2.3. Euskara Batuaren arautzearen urrats nagusiak
  - 2.4. Euskaltzaindiaren araugintza: arauak eta hiztegi batua
  
3. Euskara batuaren garapen lexiko-estilistikoa
  - 3.1. Ortotipografia; ortografia; letra larrien erabilera
  - 3.2. Esaldiaren antolamendua eta hitz-hurrenkera
  - 3.3. Morfosintaxia
  - 3.3. Izen-kohesioa; testu-antolatzaileak
  - 3.4. Hiztegia eta terminologia
  
4. Testu zientifikoaren berezitasunak eta estilo-aukerak
  - 4.1. Testu zientifikoaren osagai bereziak.
  - 4.2. Hitz elkartuen idazkera
  - 4.3. Izen-sintagma konplexuak

#### EGITARAU PRAKTIKOA

Eduki teoriko horiek guztiak modu praktikoan landuko dira, oro har. Horretarako, era askotako jarduerak egingo ditugu gelan:

- Ariketak. Testuak zuzentzea eta hobetzea (Euskaltzaindiaren arauak, hitz-hurrenkera, testu-antolatzaileak...)
- Idazlanak. Testuak sortzea, lexikoa eta estiloa zaintzen trebatzeko.
- Aurkezpenak. Ahozkoasuna lantzeko, ikaskideen aurrean ahozko aurkezpenak.

#### METODOLOGÍA

Ikasleak zein arlotakoak diren aintzat hartuta, irakasgaia ahalik eta praktikoena izango da. Beti ere hizkuntza erabiltzaile gisa dituzten eta etorkizunean izan ditzaketen beharretara egokituz.

Gelan egin beharreko ariketez gainera, ikasleek auto-ikasketako eta auto-zuzenketako ariketak ere egingo dituzte. Honen bidez, ikasleek gogoeta eginda, nahi da ikas dezaten bere "araua" sortzen; ariketa horiek egitean, irakaslea laguntzaile eta gidari izango dute. Auto-ikasketa bidez, bultzatu nahi da ikasleek nolabaiteko autonomia-maila lortzea eta unibertsitatetik irtetzen direnean hizkuntzaren inguruan sor dakizkiekeen arazoei erantzuteko gauza izan daitezen.

Saioak (teorikoak zein praktikoak), egitarauaren arabera, zenbait eskoletan eta beste zenbait informatika-gelan egingo dira. Egela plataforma erabiliko da ariketa eta lan guztiak bideratzeko.

#### TIPOS DE DOCENCIA

Tipo de Docencia	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Horas de Docencia Presencial	30		10		20				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno	25		45		20				

**Legenda:** M: Maistral S: Seminario GA: P. de Aula GL: P. Laboratorio GO: P. Ordenador  
GCL: P. Clínicas TA: Taller TI: Taller Ind. GCA: P. de Campo

#### SISTEMAS DE EVALUACIÓN

- Sistema de evaluación continua
- Sistema de evaluación final

## HERRAMIENTAS Y PORCENTAJES DE CALIFICACIÓN

- Realización de prácticas (ejercicios, casos o problemas) 20%
- Trabajos individuales 40%
- Trabajos en equipo (resolución de problemas, diseño de proyectos) 20%
- Exposición de trabajos, lecturas... 20%

## CONVOCATORIA ORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

Ebaluazio jarraitua izango da ebaluazio-tresna nagusia. Hark izango du lehentasuna.

-Eskoletara joan beharko du ikasleak (eskolen % 80ra gutxienez), eta behar den garaian eman/egin beharko ditu irakasleak agindutako hainbat eratako lanak.

-Zeregin batzuk notarako izango dira, eta jaso egingo ditu irakasleak. Beste batzuek, berriz, ez dute berariazko notarik izango, baina kontuan hartuko dira ebaluaziorako.

-Ebaluazio jarraitua egiten ari denak eta eskolaren batera joaterik izan ez duenak etxean egin beharko ditu ariketak, eta irakasleari bidali ahal bezain laster. Ebaluazio jarraituaren bidez ebaluatzeko, lan guztiak eginda izan beharko ditu ikasleak.

-Honako banaketa honi jarraituz jarriko da nota: % 25 ariketak (lauhileko osoan egingo dira), % 25 testa (6. astean), % 30 idazlanak (7. eta 13. asteetan) eta % 20 aurkezpena (15. astean).

Azken ebaluazioko azterketa fakultateak ezarritako egunean eta orduan egingo da. Idatzia eta ahozkoa izango da, eta % 100eko balioa izango du.

### HAINBAT EGOERA:

-Ebaluazio jarraituan, ikaslea eskolen % 80 baino gutxiagora joan bada edo/eta irakasleak agindutako lanak behar zen garaian eman ez baditu, 'ez aurkeztua' jarriko zaio.

-Ebaluazio jarraitua egiten hasi den ikasleak, azkenean, ebaluazio jarraituari uko egin eta azterketara aurkeztea erabakitzen badu, hala jakinarazi beharko dio irakasleari, 10. astea baino lehen.

## CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

Deialdi honetan ebaluazioa azterketaren bidez egingo da.

## MATERIALES DE USO OBLIGATORIO

Irakasleak emandako testu eta apunteak (eGela bidez jasoko ditu ikasleak).

## BIBLIOGRAFIA

### Bibliografía básica

- ALBERDI, Xabier & Iñaki UGARTEBURU (1999): Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- ALBERDI, Xabier & Ibon SARASOLA (2001): Euskal estilo-libururantz. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- ETXEBARRIA, Jose Ramon (2011): Zientzia eta teknikarako euskara arautzeko gomendioak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (Sarean ere badago-EIMA).
- ETXEBARRIA, Jose Ramon (2014): Komunikazioa euskaraz ingeniartzan. Bilbo: UEU eta EHU.
- EUSKALTZAINDIA-JAGON SAILA (CORPUS BATZORDEA) (2008): Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. Bilbo: Euskaltzaindia.
- GARZIA, Juan (2005): Kalko okerrak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (Sarean ere badago-EIMA).
- GARZIA, Juan (2014): Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (Sarean ere badago-EIMA).
- HAEE/IVAP (2005): IVAPeko estilo-liburua. Gasteiz: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP).
- MUJIKKA, A. (2008): Letra larriak erabiltzeko irizpideak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (Sarean ere badago-EIMA).
- ODRIOZOLA, Juan Carlos (1999): 'Eginez, eginik ala eginda'. In J. C. Odriozola (koord.), Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua, 55-105.

ODRIOZOLA, Juan Carlos (2005): 'Puntuazioa, gramatikagai'. In H. Knörr & P. Etxeberria (argit.), Nerekin yaió nun. Txillardegiri omenaldia. Bilbo: Euskaltzaindia, 353-378.&#8232;

PETRIRENA, Patxi (2011): Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. (Sarean ere badago-EIMA).&#8232;

ZABALA, Igone (argit.) (1996): Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon & Pello ESNAL (1993): Idazkera-liburua. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren.&#8232;

ZUBIMENDI, Joxe Ramon (1995): Euskara, kultura, estiloa eta komunikazioa. Oiartzun: Sendoa.&#8232;

ZUBIMENDI, Joxe Ramon (2004): Ortotipografia. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. (Sarean ere badago-EIMA).

### **Bibliografía de profundización**

BERRIA (2006): Estilo liburua. Donostia: Berria. (Sarean ere badago: <http://berria.eus/estiloliburua/>).&#8232;

CALSAMIGLIA, Helena & Amparo TUSÓN (1999): Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso. Barcelona: Ariel.

GARZIA, Juan (1997): Joskera lantegi. Gasteiz: HAEE-IVAP.&#8232;

GARZIA, Joxerra (2008): Jendurrean hizlari. Irun: Alberdania.&#8232;

HAEE/IVAP (1994): Hizkera argiaren bidetik. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP).

HAEE/IVAP (1997): Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP).&#8232;

HAEE/IVAP (2003): Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP).&#8232;

KALTZAKORTA, Mixel (2008): Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.&#8232;

SARASOLA, Ibon (1997): Euskara batuaren ajeak. Irun: Alberdania.&#8232;

ZUAZO, Koldo (1985): Euskararen batasuna. Iker 5. Bilbo: Euskaltzaindia.&#8232;

ZUAZO, Koldo (2005): Euskara batua. Ezina ekinez egina. Donostia: Elkar.

### **Revistas**

Uztaro <http://www.uztaro.eus/>  
Gogoa <http://www.ehu.es/ojs/index.php/Gogoa/index>

### **Direcciones de internet de interés**

EUSKALTZAINDIA:&#8232; <http://www.euskaltzaindia.net>  
EIMArean estilo-liburua: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490/estilo\\_liburua\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html)  
Hiztegiak eta corpusak sarean:&#8232; <http://www.hiztegia.net>  
UPV/EHU-ren kontsultagunea: <http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/>

### **OBSERVACIONES**